


VALDESPINA JAUREGIA

Ermuko eraikuntzarik ezagunenaren aurrean gaude, Santiago Elizarekin batera Ermuko irudirik ezagunena osatzen duena. Jauregi barroko bat da, aurreko bi estiloekin, (gotikoa eta errenazentista) erabat hausten duela, estilo berriaren eredu izanez, bai estruktura, bai apaindura, bai espazio aldetik.



ERAIKITZEKO ARRAZOIA:

Jauregiaren eraikuntzaren testuingurua ulertu behar dugu, 1760an: Orbe eta Larreategi sendiko kide bat, Andres, bai elizaren barruan bai Espainiako politikan indarra hartzen ari zen, postu garrantzitsuak eskuratuz; elizaren barnean Inkisidore Nagusi izatera iritsiko zen, eta baita Kardinal ere. Politikan berriz, Felipe Varen Gaztelako Kontseilari izatera iritsiko zen. Azken

honen eskutik lortuko zuen Markes titulua, kontseilari bezala emandako laguntzaren truke. Horrelako ohore batek etxe berri bat, estatus berria erakutsiko zuena eskatzen zuen; ondorengoei uzteko maiorazgo bat. Horregatik, Orbe Kardinalak bi obra finantzatzea erabaki zuen, herrian bere oroimena bizirik mantenduko zutenak: Batetik, 1720an Sebastian de Lecuona trazista kontratatuko zuen Santiago Eliza amaitu zezan, hildakoan bertan lurperatu ahal izateko Orbe eta Larreategi sendiko kideak. Bestetik, aztertzen ari garen jauregia eraikitzeako aginduko zuen, familiako ondareari hau eransteko helburuarekin.

ERAIKITZAILEA:

Trazista honek, lehenago Loiolako Santiagoren Basilika eraikitzeaz arduratu zena, bi lanak lotzea erabaki zuen, bien artean lotura bat egon zedin, eta horretarako bi kupulak antzekoak egitea erabaki zuen, bi eraikinak elkar osatuz. Madrilgo Errege Jauregiaren kupularekin alderatu izan da askotan hauena, eta askok, ideia bertatik datorrela uste dute, Orbe Kardinalak Madrilen denbora dezente igaroko baitzuen.

Familiak estimu handia hartuko zion trazistari beraientzat lanean ibili zen denboran, eta Santiago Elizan hilobiratzeko eskubidea emango zioten hildakoan.

Bi obra hauek amaitzeak luze joko zuen, eta ez Orbe Kardinala ez Sebastian de Lecuona trazista ez ziren iritsiko amaituta ikustera. Lecuona hildakoan, Joseph de Zuaznabar,

haren koinata, arduratuko zen obra amaitzeaz (Orbe Kardinalak helburu horrekin utzitako dirua erabiliz). 1760an amaituko zuen jauregia eraikitzeaz.

KOKALEKUA:

Kontu handiarekin hautatu zen non eraiki jauregia, leku garrantzitsua izan behar baitzuen herrian; bere garrantzia aldarrikatzen zuen leku bat. Garaiko ideologia ilustratuak natura eta arkitekturaren arteko batasuna aldarrikatzen zuen, eta eraikinek argitasun ona, aireztatzeko erraztasunak, lorategia...izan zezatela. Ego ibaiaren ondoko kokalekua ideala zen. Orbe Kardinalak lur horiek erosi eta bertan bizi ziren dozena erdi pertsona botako zituen horretarako; izan ere, herriko kaleetako baten zati bat (Arte Kalearena) izango zen jauregiaren kokalekua.

Kokaleku honek, herriaren erdigunean egotea, elizaren ondoan, baimentzen zion batetik; eta naturarekin kontaktuan, lorategi zabal bat eta ibaiarekin bestetik. Gainera, errekaren ondoan egoteak espazioa eta intimitatea ematen zizkion.

ERAIKINAREN KANPOALDEAREN ANALISIA:

Barrokoko arkitekturaren erakusle, mugimendua, ikusgarritasuna eta argi ilunekin jokatzen du uneoro eraikuntzak, arkitektura barrokoaren ezaugarri guztiak batuz horrela.

Obra izugarria izango zen: 540 metro karratukoa da jauregia, hareharrizkoa, eta garaiko Euskal Herriko gainerako jauregietatik oso ezberdina egiten duen ezaugarri bat duena: Bere kupula. Garaiko Euskal Herriko eraikinak oso konpaktuak izan ohi ziren, hezetasunari aurre egiteko prestatuak, eta horregatik, atariak, hezetasunaren sarrera errazten dutenak, ia ez ziren emango. Valdespina Jauregian berriz, konpaktutasunari uko egin, eta hezetasunari sarrera erraztu gabe espazio ireki bat sortzeko konponbidea aurkitu zuten: Kupulak atari estali bat izateko aukera emango zuen, argitasuna eta aireztatzea erraztuz bertako leiho borobilen bidez.

Eskailera nagusia kupularen azpian egongo zen, oso ondo argiztatua, eta sarrera ere hemen izango zen. Ganga eredu hau arraroa izango da eraikuntza zibiletan, erlijiosoetan emanez batez ere. Azpimarratu beharra dago gainera, honen eraikuntza ereduak, "petxina sistema" izeneko baten bidez, elegantzia handia ematen diola, barrutik borobila ikustea baimentzen baitu.

Eraikuntzaren paretei dagokionean, argi ikusten da fatxada nagusia indartu nahiko zela, bera baita apaindurarik gehien duena, eta material garestienekin eraikia: Harlanduzkoa izango da fatxada osoa, hareharrizko harlandua erabiliko zutelarik, ziur aski hareharri hau inguruko harrobi batekoa izango bazen ere (beste zenbait eraikuntza topatu dira herrian hareharri kolore berekoak).

Aurrealdeko fatxada, edo fatxada nagusiak leiho zulo ugari ditu, simetrikoki kokatuak hiru leiho ilaratan, bat pisu bakoitzeko. Ilara bakoitzak bost leiho izango ditu, eta balkoiak lehenengo eta bigarren pisuetan. Horrez gain, bigarren pisuko leiho zuloek frontoiak izango dituzte, pareta hau besteen gainetik jartzen lagunduko duena. Balkoiek euskarriak izango dituzte azpian, naturako elementuekin apainduak. Barroteetan ere lotu nahiko dira arkitektura eta natura, alkatxofa itxuradunak edo arto ale itxurakoak direlarik.

Eraikuntzaren bi aldeetan familiaren bi armarriak ikusi ahal izango dira, jada armarri bakarrean bilduta. Bizkaia guztiko armarririk ikusgarrienak bezala deskribatuak izan dira. Estrategikoki kokatuak daude kaletik ondo ikusiak izan daitezen, familiaren ohorearen froga moduan.

Gainerako fatxadak ez dira horren ikusgarriak izango, ez bakarrik apaindura gutxiago dituztelako, baita material okerragoekin eraikita daudelako ere: Harlangaitzezkoak izango dira gainerako paretak, igeltsuz estaliak eta pintatuak egongo badira ere, itxura hobea izateko.

Atzeko aldea, Ego erre kara begira dagoena, izango da pribatuena, eta elegantzia mantenduko badu ere, ez du fatxada nagusiak bezainbeste apaindurarik izango. Bi arku handi izango ditu, erdi puntukoak, barroteekin babestuak, horrela atari moduko bat osatuz hauek ere. Beste arku txikiago bat ere izango du, Jauregiko labaderora zihoan ur korrante bat barne hartzen zuena. Horrela, Valdespinako zerbitzariak ez zuten eraikinetik atera beharko arropa garbitzeko. Atzeko aldea aztertuz argi ikusiko dugu nola lehenengo pisuan biziko zen familia, bere apaindurak ederrak baitira, gainerako pisuekin alderatuta: Pisu honetako leihoek erdi puntuko arkuak izango dituzte, eta balkoi zabalak. Solairu honek lorategira zeraman patin bat izango zuen, kristalezko sarrera txiki batekin. Eraikina udaletxe bihurtu zenean bota egingo zen elementu hau, segurtasun arrazoiengatik.

Gainerako bi paretak, baratzetara begira egongo zirenak, ez dira horren ikusgarriak: Balkoiak izango dituzte leiho zuloek baina hauen euskarriak ez dute horren apaindura ederrik izango, leihoek dintelak izango badituzte ere.

Lehen aipatu dudan moduan, aldamenetako bi pareta hauen ondoan baratzak egongo ziren, eta erre karen bestaldean berriz lorategi ikusgarri bat, erre ka zeharkatzeko bi arkudun zubitxo bat egongo zelarik, gaur egun oraindik kontserbatzen dena, aldaketa askorekin bada ere. Lorategi honetan espezie arraro ugari egongo ziren, sekuoiak esaterako.

Eraikinaren inguru guztia harrizko harresi batez inguratua egongo zen, kaletik bi sarrera izango zituen, zerbitzariak bertatik sar zitezen. Sarrera hauek arku itxurakoak izango ziren eta barroteekin babestuta egongo ziren, lorategia ikustea baimentzen zuena.

ERAIKINAREN BARRUALDEAREN ANALISIA:

Hiru pisu eta ganbaraz konposatua dago. Beheko pisuarekin hasiz, sarreraz gain, bi gela eta aletegi bat egongo ziren; eta egurra gordetzeko leku bat. Sukaldea ere solairu honetan egongo zen, eraikinaren izkina batean.

Lehenengo pisura bidea sarrerako harlanduzko eskaileratik izango zen, eta bertan biziko ziren jabeak. Egongela zabal batek okupatuko zuen zati handi bat, zati publikoenera, fatxada nagusira, emango zuena, eta beste aldean berriz logelak egongo ziren. Beste bi egongela txiki ere egongo ziren pisu honetan.

Bigarren pisua eta ganbarara egurrezko eskailera txiki batetik joango zen, aldamen batean zegoena.

Azkeneko pisua gela handi bat izango zen.

Bere garrantziak, Euskal Herriko barroko ere du garbi bat izateaz gain, bere berezitasunean datza, batez ere kupula eta harlanduzko eskailerei dagokienean (azken honen berezitasuna ezeri eutsi gabe eginga dagoela ematen duenean datza), Euskal

Herrian jada arraroak badira eredu honetako etxeak, eraikuntza gehienak oso konpaktuak zirelako, are arraroagoak baitira elizarena ez den eraikin batean.

ORBETARREN BESTE JABETZA BATZUK:

Orbetarrek beste hainbat jabetza izango zituzten Valdespina Jauregiaren gain: Ermua eta Zaldibarko hainbat errotaren jabeak izango ziren, eta hainbat baserri ere izango zituzten errentan, Betiondo baserria beraien artean. Azken honen inguruan lur ugari izango zituzten, non garia landatuko zuten. Jauregiaren inguruko etxeetan jauregiko zerbitzari ugari biziko ziren, etxeak zerbitzarienak beraienak izango baziren ere.

JABEAK:

Jauregiaren jabeak, Orbetarrak, garrantzitsuak izango ziren Euskal Herri mailan denbora luzez: Andres Orbe eta Larreategiarekin hasiz, lehen aipatu dugun bezala jauregiaren eraikitzea agindu zuena. Jauregiaren izena, bere Markes titularen berdina izango zena, berak aukeratuko zuen baita ere, horretarako bere jaioterria kontutan izanez: Ermua elorri ugariz inguratuta egongo zen garaian, gazteleraz “espino” deitzen zaiona. “Elorritz beteriko harana” edo “valle de espino” bezala definituko zen ala, eta hortik eratorriko zuen izena markes berriak: Valdespina.

Bere ondorengoak ere garrantzia nabarmena izango zuten garaiko gizartean: Jose Maria de Orbe y Eliok esaterako, Valdespinako III. Markesa zenak, oso paper aktiboa izan zuen garaiko bizitza politiko eta militarrean, Lehenengo Gerra Karlistan eta horren barruan eman zen 1836ko Bilboko setioan parte hartuz. Juan Nepomuceno de Orbe y Mariaca Valdespinako IV. Markesak ere paper garrantzitsua izan zuen Lehenengo Gerra Karlistan. Azkenik, Candido eta Jose María Orbe y Gaitán de Ayala ditugu (azken hau Valdespinako V. Markesa), Hirugarren Gerra Karlistan parte hartuko zutenak, berriro ere Bilbo setiatuz, 1874an.

EGUNGO EGOERA:

Eraikuntzak berak historia esanguratsua du: 1794an frantsesek herriari su eman ziotenean, Konbentzio Gerraren testuinguruan, eraikin bakarrenetako bat izan zen zutik mantendu zena, nahiz eta garaiko kronikek esan frantsesak saiatu zirela eraikina erretzen.

Lehenengo Gerra Karlistan berriz su ematea lortuko zuten, 1834an Eibarko tropa liberalek menpean hartu zutenean. Sute horretan eraikinari buruzko paper guztiak erreko ziren, informazio asko bertan galdu zelarik. Sute honek kalte ugari ekarriko zizkion eraikinari, paretak, kupula, eta harlanduzko eskailera bakarrik utziz osorik, hurrengo Valdespinako Markesak eraberritze lan ugari egin behar izan zituelarik. Hala ere, kronikek diotenez aurrekoa errespetatu zuen eraberritze lan bat izan zen.

Denborarekin Montavillako Baroiek eskuratu zuten Jauregia, 90eko hamarkadan Udaletxeari saldu zioten arte, udaletxe berri bihurtuz eraikina.

BIBLIOGRAFIA:

- Aranberri, F. (2001) *"Ermua- Eitzaga Leku-Izenak. Geure izanaren barrena"*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Barrio Loza J.A. (1999) *"Palacio Municipal e Iglesia de Santiago. Patrimonio monumental de Ermua."* Ermua: Ermuko Udaletxea.
- Bran, B. (1988) *"Arquitectura en Ermua"* Revista Villa de Ermua, Num. 9, Pags 14-15.
- Pinedo, J.A (1996) *"Ermua, Mallabia eta Zaldibar. Bizkaiko Herrien Monografiak"*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.

KOLABORATZAILEAK:

- Fernando Aranberri

EGILEA:

Maddalen Zabaleta